



Esp. kodea: 2022PHEL0005
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: BASOLAN enplegu-formakuntza plan pilotua
Hasiera data: 2022/09/20

ERANSKINA

BASOLAN ENPLEGU-FORMAKUNTZA PROGRAMA HAUTAKETA PROZESUAREN JARRAIBIDEAK

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA / IRAUPENA
10 baso-erreak langile	Erreaka ertzen garbiketa eta landare inbaditzaileen erradikazioa. Natura bideen sarea eta natura guneen mantenua.	- 2 hilabete: %100 formakuntza - 10 hilabete: %65 benetako lana eta %35 formakuntza

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaien baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Luzaroko langabea izatea. Iraupen luzeko langabetzat hartzen dira gutxienez 360 egunez langabe egon direnak hautaketa prozesua hasi aurreko 540 egunetan.
- Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren edota Bizitzako Gutxieneko Diru-sarrearen onuradunak izatea.
- Arrasaten erroldaturik egotea.
- Oinarrizko irakurketa, idazketa eta hizketa gaztelera maila izatea.
- 2022ko urriaren 6an Kulturaten egingo den hitzaldi informatibora aurkeztea.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, aurreko puntuan ezarritako a), b), c), d) baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Lehendabiziko 20 hautagaien aukeraketa Udalak egingo du eta azken aukeraketa Lanbidek zozketa bidez.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arloburua.

Kodea	CL22/13282	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ira./20	CUDO	000.0055.AAAAWR8C.3.y6QV
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAWR8C3.y6QV		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp. kodea: 2022PHEL0005
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: BASOLAN enplegu-formakuntza plan pilotua
Hasiera data: 2022/09/20

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko teknikari bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, hitzaldi informatiboaren ordutegia, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

LANBIDEk egindako hautagaien aurretiko aukeraketan onartuak izan diren hautagaiei proiektua aurkezteko hitzaldi informatiboa emango zaie urriaren 6an Kulturaten.

Behin proiektua ezagututa, hautaketan jarraitzeko interesa duten hautagaiek baimen informatua eman beharko dute proiektuan parte hartu ahal izateko. Adierazpen hau aurkeztu ahal da momentuan Kulturaten edo gehienez urriaren 7rako BAZen.

20 hautagai baino gehiagok adierazten badute proiektuan parte hartzeko interesa, urriaren 10ean jende aurrean egingo da aukeraketa zozketa bidez.

Zozketan berrmatuko da hautatuen %40a gutxienez emakumezkoa izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan jasotakoa kontuan izanda, beti ere hautagaien artean emakume nahikoa balego.

Kodea	CL22/13282	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ira./20	CUDO	000.0055.AAAAWR8C.3.y6QV
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAWR8C3.y6QV		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

